

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sunbilla



Aurkibidea

Udalerria: Sunbilla

Sarrera



Nafarroako iparraldean eta Malerrekako eskualdean dagoen udalerria da. Igantzi eta Etxalarrekin egiten du muga iparraldean, Arantzarekin ekialdean, Bertizaranarekin mendebaldean, eta Donezteberek hegoaldean. Herria, Bidasoa ibaiaren bi aldeetan hedaturiko eta zubi zaharrak elkaturiko bi auzok osatzen dute. Herriko kale nagusia eta udalerria egituratzen duena "Kale nagusia" da.

- **Biztanleak:** 659
- **Euskaldunak:** %88,81

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **25**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **23**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Herri Irratia
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak

Hizlariak



Juana Mari Bertiz Ibarra (1947)

Sunbillan jaio zen Juana Mari. Neskame ibilia. Jostuna. Donamarian bizi da.

SUN-002 Hizlari ezezaguna

Ramon Latasa (1930-1991)

Aizkolari handia izan zen. 1954an jokatu zuen bere lehen apustua, eta ordutik makina bat norgehiagokatan aritu zen. Bat aipatzekotan, 1959an Donostiako zezen-plazan izandako apustu sonatua aipatuko genuke: Jose Narvaiza "Luxiaren" aurka 500.000 pezetako apustua jokatu zuen, eta irabazi egin zuen 18.000 ikusleren aurrean.

Fermin Zelaieta Lastiri (1939)

Etxeberria baserrian jaioa, bederatzi senidetan hirugarrena. Kontrabandoa zen diru iturri bakarretakoa inguruetan. 18 urterekin Ameriketara joan zen, 1958an, Coloradora. Bost anaiak ibili ziren Ameriketara, eta bi han geratu ziren. Fermin "campero" moduan ibili zen han, artzainekin, hartzak, lehoiak eta kaskabel sugeak bizi ziren mendietan. Euskal Herrira bueltatu zen. Legasako [Pakita Mikelarenarekin](#) ezkondu, eta familia osatu zuten. Besteak beste Leitzako paper lantegian ibili zen lanean Fermin. Leitzatik Legasara joan ziren bizitzera.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Basomutilaren lana aizkorarekin trebatzeko proposa (SUN-001/001)

Bere burua aurkezten du: non eta noiz jaio zen. 19 urterekin hasi zen aizkora lanetan, basomutil zela. Aizkorarekin trebea izateko, lan asko egin eta asko sufritu behar da basoan. Nafarroan eta Frantzian ibili izan da bera basomutil. Basomutilen lan-baldintzak lehen okerragoak ziren orain baino.

2. Apustu ugari egina (SUN-001/002)

Lehenbiziko apustua noiz eta norekin egin zuen aipatzen du. Ordutik hainbat eta hainbat apustu egin ditu. Haiek guztietan zailena Zeberiori egindakoa izan zen.

3. Baserri batean eskola (SUN-006/002)

Baserri batean leku bat zegoen prestatuta eta hura izan zen bere eskola. Urtean sei hilabetez izaten zuten, neguan. Hamalau urtera arte aritu zen. Eskolara ez joateko aitzakia bila aritzen zen. Maistrak etengabe aldatzen ziren. Maritxu Zubikoa gogoan du. Euskaraz egitearren zigortu egiten zituzten.

4. Elizaren kontrol handia (SUN-006/003)

Apaiz gehienak gaiztoak eta beldurgarriak zirela dio. Luistarra zen eta betebeharrak zituen. Igandero mezetara joaten zen. Garizumako eta Pazkoko txartelak jendea kontrolatzeko zirela dio. Arantzazuko fraideen sermoi gogorrak.

5. Beldurra eragiterainoko indarra zuen elizak (SUN-006/004)

Dena bekatua zen hemen baina Ameriketan dena desberdina iruditu zitzaion. Elizak frankismoan indar oso handia izan zuela dio, beldurra eragiteraino. Emakumeak erabat tapatuta ibiltzen ziren.

6. Iluntzeko ezkilak, etxerako deia (SUN-006/005)

Iluntzean ezkilak jotzen zituzten eta hura entzutean emakumeak etxeratu egin behar izaten ziren. Mutil gaztetxoak ere etxera bidaltzen zituzten.

7. Herrigunekoek baserritarrei barre (SUN-006/006)

Eskolan neska-mutilak elkarrekin egoten ziren, ez baitzegoen lekurik inor bereizteko. Baserritarrei barre egiten zieten herrigunekoek. Bereizketa horren ondorioak.

8. Umetako zereginak baserrian (SUN-006/008)

Etxeko mutikoen lanak: arbaztak bildu, kakoak ekarri, egurra ekarri, iratzea ekarri eta arloko lanetan laguntzen aritu behar izaten zuten.

9. Gazta nola egiten zuten (SUN-006/009)

Artaldea zeukaten etxean, eta gazta egiten zuten. Horretarako, anaia eta biak mendira joaten ziren ardiak jeztera eta bizkarrean eramaten zuten esnea etxera. Iragazkiarekin edo harizko trapearekin iragazten zuten. Lapikoan epeldu, gatzagia bota, eskuekin bildu eta gazta-zimitzetan sartzen zituzten ura kentzeko. Ondoko egunean leihoan paratzen zuten gazta.

10. Gazta idortu eta kontserbatzeko moduak (SUN-006/010)

Gazta-zimitza egurrezkoa izaten zen. Beheko aldean gazura ateratzeko zuloak izaten zituen. Idortu egiten zuten ondoren. Beste baserri batean, kutxa baten barnean, ogi pikor artean, jartzen zuten gazta kontserbatzeko. Orduko gaztei begi gehiago ateratzen zitzaizkiela dio, baita gehiago izorratu ere. Esaera bat esaten du: "Hamaika lagunek hamaika aho, gazta goizean hasi eta arratsean akabo".

11. Errekan arrainak arrantzatzen (SUN-006/011)

Errekan amuarrairak, aingirak eta zarboak arrantzatzen zituzten, eskuz, amuarekin, sareekin eta sardexkarekin.

12. Ehizan, zizarea amuarekin jarrita edo eskopetarekin (SUN-006/012)

Aitarekin ehizara joaten ziren. Usoa, birigarroa, zozoa, itsas-ahatea, ur-oiloa... ehizatzen zituzten. Zizarea amuarekin jarrita edo eskopetarekin ehizatzen zituzten hegaztiak. Untxiak eta erbiak gutxitu direla dio.

13. Txoriak harrapatzen esportarekin (SUN-006/015)

Elurra egindakoan, esportarekin txoriak harrapatzen zituzten. Nola egiten zuten azaltzen du. Tiragomarekin ere aritzen ziren. Txistua jotzeko tresnak egiten zituzten.

14. Hudoen eta ardien larrua (SUN-006/016)

Basakatuak eta hudoak ehizatzen zituzten lehen. Hudoen larrua preziatua zen. Abarkak egiteko ardien larrua erabiltzen zen.

15. Urdama nola gizentzen zuten (SUN-006/017)

Urtean txerri bat hiltzen zuten, etxean hasitakoa. Gatzetan kontserbatzen zituzten lukainak. Odolkiak egiten zituzten. Urdama erremolatxarekin, arbiarekin, artoarekin, gaztainekin... gizentzen zuten.

16. Txerri hankak eta lukainak nola prestatzen diren (SUN-006/018)

Txerri-hiltzen ibiltzen zirenak baziren. Trikinosia hasi zenean hasi zirela kontrolak esaten du. Gibela gosaltzeko jaten zuten. Hankak nola prestatzen diren azaltzen du. Lukainak egiteko makina zeukaten, baina eskuz prestatzen zuten dena. Lukainak nola prestatzen zituzten kontatzen du. Hesteak errekan garbitzen zituzten, ziri baten laguntzaz.

17. Errotako eta zentraleko argi txarra; urik ez (SUN-006/019)

Etxean ez zeukaten urik. Bidasoa erreka joaten ziren. Argia txarra izaten zutela dio. Errotatik lortzen zuten argia, baita zentral txiki batetik ere.

18. Sutopilak, garizko taloak (SUN-006/021)

Garia ereiten zuten baina zati bat errekisatu egiten zieten, baita artoa eta beste ere. Ogirik ez zuten egiten etxean baina sutopilak bai, gari irinarekin egindako taloak. Errotan alearen zati bat kentzen zieten, xehatu alde.

19. Odolkiak nola prestatu (SUN-006/022)

Zahia txerriarentzat izaten zen. Odolkiak nola prestatzen diren azaltzen du.

20. Txerri-puskak banatzen, aza hostoetan bilduta (SUN-006/023)

Txerri puskek banatu egiten zituzten, aza hostoetan bilduta. Banaketarengatik, diru pixka bat ere ematen zieten batzuetan.

21. Ekonomia baino lehen, su txikia (SUN-006/025)

Irratia bazuten etxean baina soinu handia izaten zuen. Ekonomikaren aurretik, su txikia izan zuten etxean. Gaztaina txarra zen sutarako, zartakoak botatzen zituelako; pagoa, haritza, akazia... erabiltzen zituzten.

22. Latasa aizkolaria (SUN-006/027)

Latasa aizkolariari buruzkoak aipatzen ditu. Mindegia aizkolariaren dohainak azpimarratzen ditu.

23. Kontrabandoan hamasei urterekin (SUN-006/029)

Hamasei urterekin kontrabandoan ibiltzen zen, Lapurditik Nafarroara lehengaiak ekartzen. Portugaldarrak mugaz pasatzen aritzen ziren geroago. Dirua lortzen zela dio.

24. Industriarik ez gerra ostean Sunbilla inguruan (SUN-006/030)

Industriarik ez zegoen gerra ostean Sunbilla inguruan. Basora edo atzerrira joatea zen lanerako aukera. Bera Ameriketara zela hasi ziren lantegiak sortzen inguruan.

25. Nolatan animatu zen Ameriketara joaten (SUN-006/031)

Sunbildarrak bazirenez, bera ere animatu zen Ameriketara joatera, bizi-baldintza hobeen bila. Ana Mari Marinen bitartez egin zituen joateko tramiteak. Ameriketara artzain ibilitako batek eman zion hango bizimoduaren berri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com